

ZUMAIAN ZER GERTATZEN DEN KONTATZEN DUEN HILABETEKARIA

berriak

Egunkaria
aurrerak!

2003ko MARTXOA,
109. ZENB. DOHAINIK



GERRARIKEZ!

BATZUEN BAKEA BESTEEK GERRAN ORDAINDU BEHAR



desberdina da. *Gehigarria* prestatu dizuegu, “Zumaia eta euskara” gaia jorratuz egin genuen mahai inguruaren berri ematen. *Izerdi patsetan* txirrindularitza zaleak daude. Zumaiaiko Zikloturista

Elkarateak antolatuta mahai inguru interesgarria izan zen, txirrindularitza eta medikuntzari buruz hitz egiteko. Abraham Olano izan zen hizlarietako bat. *Ze letua* izan dezazuen Jose Luis Otamendik Forondan egindako poesia irakurraldia proposatzen dizuegu. Bistan denez, denetik dago martxoko Baleiken. Gure asmoa zuek irakurtzen gozatzea da, hain gogorra den garai honetan une atsegina igaroaraztea. Horrela bedi!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberría
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea
Aitor Manterola

Kazetariak

Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,
Beñat Fernandez de

Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Uhin Loiola, Estitxu eta
Itziar Eizagirre, Gorka
Ormazuri, Karmelo
Arroiabe, Eneko
Dorronsoro, Natur Taldea

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.


Argitalpen honen edizioako laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



GIPUZKOAKO FORU AURREKONTUEN INGURUKO IRAKURKETA

ZUMAIAKO SOZIALISTA ABERTZALAK

HONAKO LERROON bitartez, Gipuzkoako foru aurrekontuak erretiratu izanaren inguruko gure irakurketa eta balorazioa egin nahi dugu. Hala, erretiratze hori errespetu gutxiko erabakia izan da. Izan ere, Diputatuen Kontseiluak bere erabakiarekin, Gipuzkoako Batzar Nagusiei urteko eztabaidarik garrantzitsuen egiteko aukera kentzen baitie. Aurrekontuena izaten da urteko gairik garrantzitsuen, eta proiektua erretiratzear eztabaida aukera ebasten zaio Gipuzkoako gizarteari. Azken batean, Gipuzkoako gizarteari eta bere ordezkariak baitagokiek erabakitzea beren diruak nola eta zertan erabili behar diren.

Hala, gure irakurketa honako puntuetan oinarritzen da:

1.- EAJ eta EA alderdiek egunak eta asteak pasa dituzte PSEekin aurtengo aurrekontuak atera nahian, PSEekin bat eginez aurtengo akordioak onartu nahian. Hori lortu ezean, orain aurrekontuak erretiratu eta PSEren laguntzarekin foru dekretu batzuk onartu nahi izateak argiki adierazten du EAJ eta EA alderdiek -guztiaren gainetik -PSEekin akordio bat erdiestea dutela helburu. PSE alderdiaren tranpan erori dira, berarekin bat eginen zutelakoan baitzeuden jeltokideak eta EAKideak. Eta PSEk ziria sartu badie ere, EAJ eta EA PSEekin elkarlan eta aliantza hori bilatzen darraite., alderdi honekiko duten erabateko sumisioa agerian utziz. Eta hau, erabat eskandalagarria ezezik, Gipuzkoar gizarteari eta herriari iruzur itzela egitea da, zein nolako garaietan bizi garen kontutan hartuz. Hau da, EAJ eta EA alderdiak ezker abertzalearen ilegalizazioaren aurka azaltzen dira, baina gero ez dute inongo erreparorik ilegalizazio hori sustatu duen alderdietako batekin elkartzeko, ilegalizatzaileekin bat egiteko; EAJ eta EA alderdia Egunkariaren itxieraren aurka azaltzen dira, baina gero ez dute inongo arazorik Egunkariaren itxiera bultzatu eta txalotu duen alderdietako batekin elkartzeko; EAJ eta EA alderdiak Euskal Herriaren aurkako erasoaren aurka azaltzen dira, baina gero ez dute inongo lotsarik eraso horiek burutu eta, finean, herri eta herritar gisa dagozkigun nazioarteko eskubideak egunero urratzen dituzten horiekin bat egiteko.

Beraz, berriro diogu: 2003ko aurrekontu proiektua erretiratzea EAJ eta EA alderdiak PSEekiko duten morrointza lotsagarriaren ondorioa da, eta ez inondik inora beraiek esan duten moduan "oposizioko taldeetan akordiorako aukerarik topatu ez dutelako". Gezurretan ari dira prepotente hauek. Gehiengo absolutua balute bezala jokatu nahi dute, 19 batzarkide besterik ez dituztenean. Sozialista Abertzaleok, ordea, geure 14 batzarkideren illdarraz, behin baino gehiagotan luzatu baitiege geure eskua aurtengo aurrekontuak onartzeko. Gu izan gara, hain zuzen, horretarako aukera eskaini diegun bakarrak, eta aurrekontuak ziurtatze-

ko borondatea eskaini diegun bakarrak. Elkarrizketaren alde eta demokraten izenean sarritan azaldu zaizkigun Foru Gobernuak izan dira Gipuzkoako talderik handiena baztertu eta elkartu nahi ez duena, Gipuzkoako talde handienari eztabaida ukatu eta parte hartzea debekatuz. EAJ eta EA alderdiek, ostera, nahiago dituzte euren interes propioetan oinarrituriko akordioak sinatu, herri honen zerbitzura eta interesen arabera akordioak zein aurrekontuak ziurtatu baino. Beste behi! ere eta ez dakigu zenbagarren aldiz lehenengo dirua eta gero herria .

2.- Bestetik, forma aldetik ere erabat salagarria da foru aurrekontuak erretiratu izana. Berandu izan arren, proiektua aurkeztu zutenean prozesu bat jarri zen martxan. Lan asko egin behar izan dugu aztertzen, zuzenketak egiten eta ekarpenak proposatzen. Ordu askotako lana alferrik izan da, Diputatuen Kontseiluak honela erabaki duelako. Duela bi urte bezala, foru dekretu bidez ziurtatu nahi dituzte aurrekontuen hainbat partida. Eta bidezidor hori ez da zilegia. Eztabaida osoa egiteko aukera ezabatzen du. Eta, galnera, ez du ziurtasun juridikorik eskaintzen. Jokaldi edo trikimailu hau "Errepublikan bananeroetako" sistemetan erabiltzen den errekursoa da. Hau al da EAJ eta EA alderdiek hainbestetan ahoa betetzen zaien demokrazia hitzaz duten kontzeptua? Hau al da herriaren zerbitzura egotea eta herriaren alde lana egitea? Hau al da gipuzkoarren interesak defendatzea?

3.- Gertaturikoa larria bada ere, aurrekontuekin emandakoa ez da Gipuzkoako Foru Aldundian gertatzen den lehen aldia. Zoritarrez, EAJ eta EA alderdiek ohiturik gauzate honelakoetara. Izan ere, 1999an hasi eta amaitzean dagoen legegintzaldi honetan soilik bi aldiz onartu baitira aurrekontuak normaltasunez, prozeduran zein denboran. Justuki 2000.urtean ezker abertzalearekin adostutakoa, eta hurrengo urtean luzapena izan zutena. 2002an PSOEkin onartu zituzten eta aurtengo beste behin luzapena izango dute. Foru Gobernuak alderdiak iparrak gabe dabilta gipuzkoarrentzako hain garrantzitsua den instituzio hau nahi duten eran eta beraien komenentziarako gobernatuz.

Baina euren erantzukizuna, euren auzua. Ez baitira oharitzen edo, hobe esanda, ez baitute ikusi eta ez baitute onartu nahi, ezker abertzalearen sostenguak hobekuntza dakarrela Gipuzkoako Foru Aldundian; ezker abertzalearekin elkarlanak normaltasuna ziurtatzen duela, bai instituzio berarentzako zein herritarren interesetarako. Eta beste guztiek, berriz, bestelako elkarlan saiakerek, ordea, atzerapena, normaltasun eza eta porrota. Atzera begiratu besterik ez dago.

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



Alberdi

Gizonen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Oikian bizi nahi dugu

JAKINA DA OIKIARROK beste ezpal batekoak garela, joaten garen tokian ez dut uste inork zumaiaarra dela esaten duenik nahiz eta gero non dagoen esplikatu behar izaten dugun (oilaskoak eta guzti hori...) eta Zumaiaara azal dutakoan ere oikiarrak izan ohi gara onerako eta txarrerako. Nahiz eta legez auzo bat izan herri izaera izan du betidanik Oikiak. Horren adibide ditugu bertako eskola, elkarteak, eta nola ez, udako festarik onenak.

Baina azken aldiaren arazo eta behar bat baino gehiago azaldu zaizkigu, alde batetik eskola txiki eta zaharkitua geratu da Oikiako haurrei gaur eguneko heziketa eman ahal izateko eta beste aldetik etxebizitza guztiak bete egin dira. Ondorioz etxebizitza baten beharrean dauden oikiarrek inolako aukerarik ez dute bertan bizitzeko jarraitzeko.

Orain dela gutxi Zumaiaiko Udalak behar horiek bete-ko lituzkeen bi egitasmo azaldu zizkigun, alde batetik eskola berri bat egitea (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren eskutik), eta bestetik etxebizitza berriak eraiki-

zteak. Oikiarrok nola ez, begi onez ikusten ditugu bi egitasmo horiek, beti izan duen herri nortasuna mantentzeko beharrezkoak diren bi zutabe baitira oikiar gazteak bertan bizitzeko jarraitzea, eta haurrek bertan ikaste-ko aukera izatea.

Horregatik lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke egitasmo hauek aurrera eramateko inplikaturik dauden guztiek ahalegin berezia egin dezaten, Oikiaren herri izaera baitago jokoan.

Nunca mais!!
Gerrarik ez!!
Egunkaria aurrera!!
eta
OIKIA BIZIRIK!!!



Ibon Aizpurua



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Esker aunitz



Uhin Loiola

Galdera existentzialak garrantzitsutzat ditut eta norberak edozerri buruz pentsatzea ezinbestekotzat. Ba hori, pentsatzearen garrantziaz pentsatzen, konklusio batera iritsi naiz.

Jakituriari gero eta garrantzi gutxiago ematen zaio, eta jakituria hori da gizakiak duen erreminta garrantzitsuen edozer gauza ulertzeko.

Tristura handia ematen dit norberak bere jakituria ez erabiltzeak arazoak konpontzeko, edota oraindik tristeago dena, hain gutxi erabiltzen dute kaskoa, arazoak daudenaz ez jabetzeraino.

Alegia, lehen, ikasteak argiago izatea esan nahi zuen, eta gero onura hori erabiltzen ere ikasi egiten zen. Orain ikastea estudiatzearekin nahasten dugu, eta honek (ikasteak) lan aukera esan nahi du. Jakitearren ikaste hori galdua da. Ikasgelan ezezik asko ikas daiteke han ez dauden liburuetatik, lagunen esperientzietatik, haurren jokabideetatik, agureen kontuetatik, etb...

Entzuten, egoten, isiltzen, pentsatzen, begiratzen, ukitzen, ulertzen, maitatzen, gorrotatzen, ikasi beharko genuke guztiok, eta irakatsi, noski.

Nik hemendik, zinezko eskerrikasko bat bidali nahi diet gaurdaino zerbait irakatsi didaten orori.

Eskerrikasko!

Uhin Loiola



"Lepo gainean denok daukagun laguna", hala definitzen zian Andoni Egañak ezagun egin huen bertso hartan, "gehiegik gutxiegik erabiltzen duna". Halako toki txikian (konforme, nire gisako batzuna ez hain txikia) hainbeste leku, espazio, aukera...bertigo apur bat ere eman ohi zidak oroitze hutsak. Eta neure kasa oroitzearen sustotik besteri azaltzera, izu bihurtzen zaidak.

Zinezko eskerrikaskoa bidali duk hik Uhin, eta jasoko zian tokatzen zaionak. Nik zinezkoa ezik, zinekoa aipatu nahi diat. Urruna, fikziozkoa gainera.

Pentsatu zale etzekiat bagaituken, baina badiat konfiantza oraindik. Sustotik izurako jauzia egiteak koldartzen gaituelakoan nauk ni; gure usteak, kritikak, argudioak, plazaratzea kostatzen zaigulakoan. Eta horregatik bidali nahi dizkiat nik irudi urrunak, fikziozkoak. Ni ere eroso sentitzen bainauk hor.

Gogoan diat pelikula. Lurralde urrun hartako gerra, fikziozkoa noski. Izan ere gure etxe ataria zipriztintzen ez duen oro baizaiguk fikziozko. Eta zineko butakaren epelean denok gaituk artalde bereko ardi, eta hor erraza duk pentsatzea, kritikatzeta, argudiatzea.

Pegatina handi bana ipini, eta lasai joango gaituk lotara. Baina zer gertatzen duk zinetik kanpo? Etxe ataria zipriztintzen duten gertaerekin? Uff! Nola esan, nori... badaezpada...ez pegatina hori ez, ze bestela...

Pelikula baterako modukoak dituk hauek ere, eta zineko butakaren epelean ikusita, lasai hitzgingo genikek hauetaz.

Artzairik gabeko ardiak

Karmelo Arroiabe



Poz haundia hartu diat bi ardi hauena irakurtzean. Pentsamentua eta Jakituria ez dituk egunero entzun eta irakurtzen diren hitzak eta are gutxiago, nire ustez, gizartearen esparru zabalean. Kale eta tabernetako hiztegi laburra baino laburregotik kanpo, zerbait aipatzen denerako, erantzuna berehala zetorrek: TXAPA j. Ez gaudek ez gogoetarako garaietan; dena esanda eta asmatuta dagoela zirudik, dena zekiagula eta gogoetarako ahalegin pertsonalak debekatuak zeudek. Hemen, pena merezi duen ahalegin bakarra zera duk: lau erroksila loturik dituen markako kotxea erostekoarena alegia. Ez zaiok ajola hartarako zenbat lan ordu beharko diren; beharrezko bada, baita Pinotxoren (de 8 a 8) ordutegia ere. KANPOEDERren garaiak dituk lagunok. Gorputzaren itxura, arropak, kotxea eta gainontzeko ondasunak lortzea dituk bizitzaren

arrazoi eta helburu; eta Polikiroldegiak eta Corporación Dermoestética gaurko Tenplu nagusiak.

Artifizial,ordezko,faltso,gezurrezko gauzak gure kodean onartuak zeudek jadanik, baldin eta Kanpotasuna "edertzen" badute.

Artzain asko zegok gaur egun, bakoitzak artalde bere larretara eramane nahiean, eta ez politikaren alorrean bakarrik. Ni neu, ez nauk oso artzain zalea; haren zeregina ukatzen ez badiat ere, gogokoago diat ardi bera ahalengintzea larreak aurkitzen, eta berak erabakitzea zeintzuk dituen gogoko eta zeintzuk ez. Beraz bi ardiok badakizute zer egin: Pentsamenduaren eta Jakituriaren larreak bilatzen hasi inongo artzainen zain egon gabe. Larre freskoak eta ederrak. Ardi zahar batek beste bati (neuri) behin esan zioan larrerik onenak Grezia aldean ote zeudean.

Ondo bedeinkatutakoa

Gipuzkoan sekula egin den ontzi handienak Zumaia utzi zuen martxoaren hasieran.

Egin beharreko lanak bukatuta, itsaso zabala ezagutzeko aukera izan zuen "Grampian Surveyor" itsasontziak. Sekulako ikusmina piztu zuen herrian ontzitzarraren irteerak.

Itsasoaren bedeinkazioa hartu aurretik, ordea, paolaldeko harriek ere bedeinkatu nahi izan zuten. Zumaiaiko barratik irtetzeko egin behar den maniobrak egiten ari zela, kapitainak kalkuloak oker

egin, eta harriak jo zituen. Zorionez ez zen ezer gertatu, eta bere bideari jarraitu ahal izan zion Iparraldeko uretan lan egingo duen itsasontziak.



ARRANTZALEAK ARRANTZARA

PRESTIGE-N HONDAMENDIAK itsaso zabalean eragindako kalteak gutxituta, arrantzaleek berriro ere arraina harrapatzeko aukera dute. Fuela biltzen sekula behar hainbeste eskertuko ez diegun lana egin eta gero, berriro ere itsasoan dira gure arrantzaleak. Zorte ona izan dezatela!!



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10

Larrialdia
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



**METRO
taberna**

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

**AITA MARI
kafetegia**

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Atturitik Ebrora Himalayatik barrena

AURTENGO MENDI astearen barruan lau hitzaldi eta bideo emanaldi interesgarri izan dira. Mendiari begiratzeko lau ikuspegi: Alberto Madinabeitiarena, Alberto Iñurrategirena, Xabier Arangurenena eta Josune Bereziarturena.

Atturitik Ebrora...

Xabier Aranguren zumaiarrak emandako diapositiba sortaren izenburua horixe izan zen. Euskal Herriko paisaia eta ibilbide zoragarriak banan bana azaldu beharrean, gure paisaiarekin, naturarekin eta geografiarekin lotura duten beste hainbat gairi buruz hitz egin zuen Xabierrek.

Kezkatuta dagoela azaldu zuen, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako paisaiarekin. Ez daude ondo zainduta: pinu asko, obra handiak.... Nafarroak, Arabak eta Zuberoak itxura askoz hobea dutela esan zuen. Osasuntsuago daude.

Harrobiek paisaiari eta naturari ikaragarritzko kaltea egiten diete. Baina bada Xabier asko kezkatzen duen proiektu bat: Abiadura Handiko Trenarena. Natura behar den bezala zaintzearen erabat kontrako proiektu bezala definitu zuen.

Mendizaletasunak hartu duen bidea-

rekin ere ez dago oso konforme. Garai batean mendia naturarekin lotzen zen, baina gaur egun kirolarekin lotura handiagoa duela azpimarratu zuen. Tontorretara igo eta kitto!! Bidean eta mendian zer dagoen ikusi gabe. Mendiarekin erabat gozatu gabe. Xabierren ustez, mendiak eta naturak bat eginda egon behar dute. Kirolaren ikuspegi hori ondo dagoela dio, baina naturarena eta kirolarena uztartzearen aldekoa da.

Kanpora egiten diren bidaiak ere jorratu zituen. Galdera hau bota zuen: oso ondo dago Nueva Zelanda joatea, baina Euskal Herriko bazterrak ezagutzen al ditugu?

Hire Himalaya

Alberto Iñurrategik Himalayara egindako espedizioetan jasotako irudiekin egindako bideoa eskaini zuen. Zuri beltzean. Felix anaia zen bideoaren ardatza. Felix hil aurretik Albertok mendia nola bizi zuen, eta hil ondorengo ikuspegia uztartu zituen. Hunkigarria izan zen. Buka-



tzeko Felixek asmatutako bi esaera gogoetarako:

- Zuhaitz batera igo aurretik, jaisteko kapaz izango zaren jakin.
- Bat ez da batera iristen. Bi bi t'erdia.



ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Pazoleta de los Forros - Ego
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Insundegi Elgoiber

KABI

TERMINAL - ZUMAI

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

Artea Kongokoen alde



ZUMAIAKO Kongolagun taldeak eta Arte Eskolak antolatutako erakusketa Kongorako dirua biltzeko. Martxoaren 11tik 23ra Alondegi Zaharrean erakusketa interesgarria egon da ikusgai. Kongoren aldeko beste ekimen bat izan da, Arte Eskolako ikasleei bururatutakoa. Beraiek egingako koadroak erakutsi eta saltzea pentsatu zuten, eta bildutako dirua Kongora bidaltzea. Kongolagun taldearekin harremanetan jarri, eta koadroak nahi zuten orori eskatzea erabaki zuten. Horrela, Arte Eskolan ez dabilzan beste batzuen lanak ere erakusketan izan dira. Guztira berrogeita lau koadro bildu dituzte, eta

hor izan dira Alondegi Zaharrean ikusgai. Gehienak zumaiaarren lanak izan dira, baina tartean egon da kongokoen lanen bat edo beste.

Hasierako asmoen arabera, bildutako diruak orain hilabete pare bat Zumaian osatutako kontainera bidaltzeko izan behar zuen. Baina asmoak aldatu, eta dirua Kongoko proiektuaren alde izango zela erabaki zuten.


Salmentak

Kongolagun taldeko kidea den Joseba Ossak esan digunez, saldu dituzten koadroak doze-

na bat edo izan dira. Salmentak prezio onean egin dituztela esan digu.. Diru gehiago biltzeko, erakusketa bukatuta saltzeke zeuden koadroekin enkante edo subasta egitea erabaki dute, eta albiste hau idazterako garaian horretan ari dira, enkantea egiten.

Hurrengo asmoak

Kongo aldean diruaren behar gorria dutenez, Kongolagun taldeak beste ekimen batzuk antolatzeko asmoa du. Saldu gabe gelditu diren koadroak zozketatzea ere pentsatzen ari dira. Dena eginda ere gutxi izango da, zoritxarrez.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523

Badator KORRIKA!!

KORRIKA Kulturala

Martxoaren 29an, larunbata:

KORRIKA festa. Txalapartariak, trikitilariak, pintxoak jateko aukera, IV. Piropo Lehiaketako sarien bana-keta.

Apirilaren 5a, larunbata:

Pako Aristiren eta Mikel Markezen ekitaldi berezia. Musika eta hitzak oso era dibertigarrian nahastuta.

Aita Mari Zineman, 22:30etan.

Sarrerak salgai: Foronda,

Inpernupe, Metro, Turismo

Bulegoa, Foto Mertxe, 5 eurotan.

KORRIKA

Apirilaren 4a, ostirala:

Herriko ikastetxeek Korrika Txikia antolatuko dute. Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak Beheko Plazan arituko dira herriko umeak alaitzen, 4:30etatik aurrera.

Apirilaren 6a, igandea:

Goizeko 9:30ak aldean KORRIKA igaroko da Zumaatik. Lehenago salda eskainiko dugu, Alondegi Zaharrean.



... aek-k eta
euskarak
nainbat eraso
jasan
dutela azken
urteotan ?

Aurtengo Korrikaren
helburuak gauzatzeko herria
eta herritarren laguntza
beharrezkoa dugu. Izan ere,
azkenaldian euskarari eta
AEKri egindako erasoek larri
kaltetu dute koordinakundea.



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Denei utziko al diete?

AZKENEKOAK URRUTI ez izan arren, berriro ere hauteskundeak ditugu ate joka. Maiatzaren 25ean egingo dira Udaletarako eta Foru Aldundietarako ordezkariak aukeratzeko bozketak. Nahiz eta bi hilabete eskas falta, batzuen parte hartzea ez dago ziurtatuta.

Uste zen bezala, martxoaren 17an legez kanpo laga zuten Batasuna. Erabaki hori hartuko zutela antzemandanda, Euskal Herriko herrietan hainbat herri plataforma sortu zituzten ezkertiar aurrerakoi eta abertzaleak biltzeko. Plataforma horiek Autodeterminaziorako Bilgunearen ildoak jarraitzen dituzte, eta Euskal Herriarentzako autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen dute. Zumaian Izustarri sortu berria da.

Zumaiaiko Udalerako alderdien zerrendaburuak

Izustarrikoek hauteskundeetara aurkezteko asmoa dute, baina Espainia aldean dituzten asmoak betetzen badira, ez diete parte hartzen utziko, Batasunaren ondorengoak direla argudiatuta. Zerrenda osatuko duten pertsonak nortzuk izango diren oraindik ez dute erabaki.

EAJk eta EAK koalizioa osatzea lortu dute hainbat bilera eta beste hainbat tirabiraren ondoren. Zumaian aurkeztuko duten hautagaia Maria Eugenia Arrizabalaga izango da. Zinegotzi lanetan zortzi urte daramatzan zumaiaarra da, hogeita hamasei urte ditu, eta Zuzenbidean lizentziatua da.

Ezker Batuak oraindik ez du erabakigure herrian hautagaitzarik aurkeztuko

duen. Apirilaren bigarren hasterako erabakiaren berri izango dela esan digute.

Aralarrekin harremanetan jartzen saiatu gara, baina ez dugu lortu. Horrenbestez, ezin izan dugu jakin Zumaian hautagairik aurkeztuko duten.

PSE-EEk hautagaia zein izango den oraindik erabakitzeke du. Sozialistek esan digutenez, besteetan baino beranduago dabilta, euren kargu publikoek bizi duten egoera gogorragatik arazoak dituztelako zerrendak osatzeko.

PPk herri guztietan hautagaien bat aurkeztuko zuela agindu zuen. Horri helduta, Zumaian ere aurkeztuko dute norbait. Balizko hautagaien berri jakiteko, saiatu gara eurekin harremanetan jartzen, baina ezinezkoa izan da.



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kaler, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kaler, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu

... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirazelaien mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoak,

Balorazioak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

TXOMIN ZABALETA
A P A I Z A

"Seminararioaren egoerak parrokien etorkizuna islatzen du"

SAN JOSE EGUNEAN bildu gara Txominekin zenbait gairi buruz duen iritzia jasotzeko, eta hona hemen luzatu dizkiogun galderei emandako erantzunak.

Aurten hiru urte egingo dituzu Zumaian, zer nolako balorazioa egiten duzu?

Alderdi askotatik begiratura, ahuldua eta zaharkitua dagoen gauza ematen du elizak. Baina egia esanda, ilusioa eta indarra ematen du, gure kristau elkarteetan, duen guztia emanez lanean ari den jendea ikusteak. Fedearen eta gizon-emakumeen arteko urruntasuna edo hurbildu ezina hautsi nahi duen pertsona talde bat topatu dut hemen. Elizara hurbildu ahal izateko igogailua jarri nahi duten bezala, kendu nahi dituzte beste oztopo batzuk: Jainko urruna eta gaurko gizartea banatzen duten horma izugarriak topaketarako eta fede berria bizi ahal izateko toki bihurtu nahi dituzte. Eta ni prest nago pertsona talde hau suspertzeko eta lanean laguntzeko, horretarako bidali ninduten eta horretarako nago hemen.

Denbora honetan aldaketa ugari egin dituzue. Zergatik? Nolako harrera izan dute jendearen artean?

Gauzak ez dira egin behar besterik gabe, beti egin direlako. Zergatik eta zertarako galderei erantzun behar zaie egiten diren gauzekin. Elkarrekin helburu batzuk ditu, eta etengabe ebaluatu behar du egiten diren gauzek helburu horiei erantzuteko balio duten ikusteko. Balio ez badute, berriz, zuzenketak eta aldaketak egin beharra dago.

Haurrek lehen jaunartzea egiteko dotri-na ikasi behar dute, baina dirudienek erakusteko oso jende gutxi dago. Zer irtenbide ikusten diozu?

Katekesi prozesuaren helburua, haurrek kristau izatearen beritasuna eta alderdi positiboak ezagutu eta bizi ahal izateko esparru bat sortzea da.

Garizumak jo du kanpaia aurten ere kristaudentzat, eta aste santua ere gertu dagoen honetan, Txominekin, Zumaiaiko parroko gaztearekin, egon gara solasean.



Horrek, euren fedea transmititzeko prest dagoen talde bat eskatzen du. Baina dena, jaunartzeko zenbat ikas-turte egin behar diren galdetzera murrizten bada, porrot egin dugu gure asmoetan.

Parrokian zaudeten hiru apaizetatik bi adinez aurreratuak dira. Zer ondorio ekarriko ditu On Jose Maria eta On Jose egunen batean erretiratzek?

San Pedro Parrokia ez da bera baka-
rrik. Honek, Artadi eta Oikiarekin eta Aizarnazabal eta Getariarekin batean «Saiatz Ibarra» deituriko Pastoral Barrutia osatzen du. Eta beraz lau apaiz gara, Aitor ere taldekoa denez. Pastoral egitasmoak eta lanak bost parrokiek batera antolatu eta egiten ditugu, eta elkarri laguntzen diogu behar denean. Aitor eta ni bakarrik geratzea elkarteko jendea murriztearekin batera dator. Guztiok egin beharko dugu ahalegina, dena apaizen esku utzi gabe gauzak aurrera ateratzeko, fedea ez baita apaizona bakarrik. Indarrak gutxitzeak, garrantzirik gabeko gauza asko utzi eta egiaz pena merezi duenean bakarrik lan egitea eskatuko du.

San Telmotako prozesioa kentzekotan omen zabiltzaten zurrumurrua zabaldu da herrian, egia al da?
Egia da, bai, hirugarren urtez zurrumurruek gauza bera diotela. Aspergarria benetan.

Gero-eta jende gutxiago hurbiltzen da elizara, zergatik gizarte honen aldaketa?
Kristauak gero eta gutxiago direla egia da. Baina kontraesan handia ikusten da, ordea herri-ohituretan: haurrak bataiatzea, lehen jaunartzeak, ezkontzak, hiletak... inflazio erlijio-soa agian?



TXOMIN ZABALETA

Orain dela 31 urte jaio zen Elgoibarren. Urte honen bukaeran hiru urte egingo ditu Zumaian, bertan parroko dela. 1997. urtean apaiz egin zen, 26 urte zituela. Musika du gustuko eta irrati-afizionatua da.

“Elizbarrutian hausnarketa aldi batean ari gara”

Seminarioan oso jende gutxi omen dago, zer etorkizun ikusten diozu elizari?
Seminarioaren egoerak parrokien etorkizuna islatzen du. Jende gutxiegi, itogarria den eskakizun baten aurrean. Elizbarrutian hausnarketa aldi batean ari gara, pastoral planteamendu berriak bilatu nahian.

Apaizak ezkontzea zer iruditzen zaizu? Eta emakumeak apaiz egitea?
Nik ez diot inongo oztoporik aurkitzen. Baina, adibidez, emakumeak apaiz egitea onartu behar bada, bidezkoa delako izan behar du eta ez gizonezko gutxi dagoela eta irtenbidea bilatu nahian. Dena den, ez dago nire esku gauza horiek aldatzea.

Zer iritzi duzu Egunkariaren itxiera, Prestigen hondamendia, Irakeko gerra eta Euskal Herriaren etorkizunari buruz?
Ba ez noa ezer esatera. Ez nuke Auzitegi Nazionalen buka-tu nahi!

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

Gure txokoa
• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Konpromisoen garaian, 150 baietz!

Zumaian ere sortu da EGUNKARIAren aldeko Herri Batzordea. Gorka Zabaletak herrietan eta hirietan jasotzen ari diren atxekimenduei buruzko gogoeta egiten du.



Hilabete luzea pasa da Juan Del Olmo epailearen aginduz Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkaria itxi zuenetik. Hilabete luzea, gertakariak bata bestearen atzetik etorri baitira, arrapaladan. Egunkariako langileok ahal izan dugun moduan erantzun diogu eguneroko erronkari, etorkizunearantz pentsatzeko denbora hartu ezinik. Baina sasiak sasi, hasi gara bidea ikusten. Oztopoak ez dira nolanahikoak izango, baina euskarazko egunkari berri eta sendoago bat kaleratzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

Hilabete luzea pasa da, eta Euskaldunon Egunkariako langileok gizarteak eskaini digun elkartzunezko babesa eskertu baino ezin dugu egin. Pentsatzen genuena baino gehiago ginela ohartu gara. Hunkigarria izan da guretzat, aurrera egiteko bultzada ikaragarria. Donostiako manifestazioko burrunba barrenean sartuta daukagu oraindik, baina alferrik da atzera begira gelditzea. Egunkaria betirako itxi digute, egin dezagun beste bat!

Denon artean, euskarazko egunkari sendoago bat egin dezakegu. Hori izan dadila gure erantzuna. Euskaldunon Egunkaria bezala, egunkari berriak gizartearen babesa behar du, gizartearen errotutako egunkaria behar du izan, instituzio-

ek lagundua, baina haiengandik independentea. Egunkari euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala,..., Euskaldunon Egunkaria oinarri hartuko duena, azken finean. Elkartasun oldea konpromiso bihurtzeko garaia iritsi da.

Zumaiako Herri Batzordea

Euskal Herriko hainbat herritan beza-la, Zumaian ere Egunkariaren aldeko herri batzordea sortu da, proiektu berriari laguntzeko helburuarekin. Euskarazko egunkari berriaren alde lan egiteko prest dagoen orori dago irekia. Bilerak Oxford aretoan izaten dira, ostegunero arratsaldeko 20:00an. Helburuak finkatzea eta horiek aurrera eramateko planifikazioa lantzea izan dira orain arteko zereginak. Bi talde osatu dira horretarako: Erantzunaren taldea kale presentziaz arduratzen da, pankartak eta kartelak egiteaz, kamiseten salmetaz... Proiektu berriarentzako diru bilketa da bigarren taldearen zeregina.

Lehen erronka: 150 harpidedun berri egitea

Euskaldunon Egunkariak 15.000 aleko tirada zuen, eta horietako 6.000 harpidedunen artean banatzen ziren. Datu biribilak dira, gutxigorabeherakoak. Egunkariaren tiradak etengabe egin du gora azken urteotan, harpidedun berriei esker, batik bat, baina prozesu luzea eta nekeza izan da. 13 urte behar izan ditugu proiektua sendotzeko, azpiegitura eta baliabide txukunak lortzeko -Martin Ugalde Kultur Parkea, esate baterako-, langileen lan baldintzak eta soldatak duintzeko, kalitatezko produktua eskaini ahal izateko. Zoritxarrez, hori guztia pikutara bidali digute. Zorionez, duela 13 urte ez zegoen lan taldea dago orain, gaztea baina zaildua, profesionala eta ilusioz beterikoa.

Egunkariak egindako 13 urteak alferrikakoak izan ez daitezen, proiektu berria oinarri sendoekin abiatu behar da. Eta

Zenbat diru da harpidedun egitea?

EGUNEROK 0,80 zentimo balio du eta, harpidedun eginez gero, etxean jasoko duzu (banaketa zerbitzua doan da). Zure ekonomiara egokitutako epeak daude kobraketa egiteko:

-3 hiletik behin: 68,75 euro.

-6 hiletik behin: 137,50 euro.

-Urtekoa: 275 euro.

Deitu 943 30 35 55 telefonora, edo jar zaitez harremanetan Zumaiako herri batzordearekin (943861545).

Harpidedun egiteko behar diren datuak: izen-abizenak, helbidea, herria, herriaren posta kodea, telefonoa, nortasun agiriaren zenbakia, jaioteguna, lanbidea eta kontu korronteko 20 zenbakiak.

Egunkariak egindako 13 urteak alferrikakoak izan ez daitezen, proiektu berria oinarri sendoekin abiatu behar da.



Herri Batzordean gazteak ere gogoz ari dira.

egunkari batek izan dezaken oinarri sendoena irakurleak dira. Irakurleek ematen baitiote bizitza egunkariari. Horregatik, Euskal Herrian 10.000 harpidedun berri egitea da gure buruari jarri diogun lehen helburua. Orain ez badugu lortzen, noiz lortuko dugu?

Zeregin horretan, zumaiarrok badugu erronka propioa: 150 harpidedun berri egitea. Harpidetza kanpaina prestatzen eta lantzen ari da jada Herri Batzordea, baina garbi izan behar dugu norberak duela hitza, norberak egin behar duela urratsa. Egunkaria egunero erosi eta irakurtzea baino konpromiso irmoagorik ez dago. Euskarazko prentsak oztopo handiak gairatzen behar izaten ditu: euskarak gizartean duen presentzia eskasari euskaldunok euskaraz irakurtzeko dugun ohitura falta gehitu behar zaio. Euskarak aurrera egingo badu, euskarazko prentsa erosi eta irakurri behar dugu, gure burua behartu behar dugu, pixkaka ohiturak aldatzeko.

EGUNEROK hartu du Euskaldunon Egunkariak kioskoetan utzitako lekua. Gertatutako bidegabekeriari emandako behin-behineko erantzuna da EGU-NERO. Ditugun balibide eskasekin, muga guztiekin, ahalik eta produkturik duinena eskaintzen saiatzen gara. Dena den, garbi utzi nahi dugu Euskaldunon Egunkaria eta egunkari berri baten arteko parentesia baino ez dela EGU-NERO. EGU-NERO ez da gure etorkizuneko proiektua. Hura gauzatu bitartean, harpidedunek EGU-NERO jasoko dute.

EGUNKARIA = EUSKALGINTZA?

HURA ZEN HURa jendetza 2003-02-22 egunez Donostian bildu ginen! Zer dela eta horrenbeste lagun kalera? Gertarazi dutenaren kontra gaudelako. Baina, gertatu denak alderdi eta aurpegi asko ditu: 1) gure gizartean hainbat herritarrek libreki erosi ohi zuten komunikabide bat itxiarazi dute; 2) oso-osorik euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarra da itxiarazi dutena; 3) ezker abertzalearen aldeko joera editoriala erakutsi izan duen egunkaria da; 4) bertako langileak kalean utzi dituzte; 5) arduradunetako zenbait legez kontra ari izanaz salatu dituzte (geroztikakoak dira hauteako batzuen salaketak jasandako tratu txarrei buruzkoak) eta 6) guzti horren babesle-zirikatzaille egungo PPrek eskuko gobernu espainola izan da.

Donostian bildu ginenok ez diogu garrantzi berdina ematen alderdi horietako bakoitzari. Beraz, gure ezezeko bate-ratuak ez ditu baiezeko berdinak biltzen. Euskal gizarteaz egiten ditugun azterketek zerbait balio badute, aurrenengo biak (1,2) eta azkenengoa (6) izan dira erabakiorrenak hainbat jenderen eze-zkoa biltzeko.

Aipatu dugun puntuetako bakoitzak mereziko luke, ikerlan zehatza. Baina denetaz aritzeko tarterik ez dudanez, aurrenengo biei helduko diet bakarrik, eta gure herrigintza-ren demokraziazkoaren eta euskarazkoaren ikusgunetik begiratuta, bi horiek dira-eta, nere iritziz, interesik orokorre-na dutenak.

Partehartze demokratikoak indarra duen herrietan –eta indarra duen neurri berean- zera bitxi bat gertatzen da: demokraziak berak sortarazten duela, zenbait erakunde demokratiko helburu eta jokabide antidemokratikoen zerbitzura erabili ahal izateko aukera. Herrialde demokratikoe-tan, ez zaie herritarrei aukerarik ukatu behar beren herriki-deei programa antidemokratikoak aurkeztu eta eztabaida-tzeko, teknokraten edo faszisten edo sekta berezi baten dik-tadura eskaintzeko bezala proletagoraren edo klase irauil-tzailearen edo alderdi komunistaren diktadura proposatze-ko. Eta demokraziak ez luke indarririk proposamen horien aurrean, herritarrik gehien-gehienek beren jarrera, joera eta jokabidea demokraziaren bideetatik sendoagotzea erabaki eta lortuko ez balute. Hortik du demokraziak bere irabazia.

Nabaria da demokraziaren kontra erabiltzen direla demokraziak beharrezkoak dituen hainbat erakunde demo-kratiko. ETA-k ezezik GAL-ek erabili ditu, ezinbestekoak ditugun bitartekoak, telefonoak eta komunikabideak, azoka

libreak –gauzak saldu eta erosteko, kotxeak alokatu eta kon-pontzeko ...-. Baina hori horrela dela jakiteak ez du, demo-kraziaren ikusgunetik, bidezko sekula egingo, telefonoak, komunikabideak, azoka ...(edo dena delakoa) interbenitzea eta botere bakar baten manupeko egitea.

Hori da nere iritziz, Egunkaria itxiarazteko erabakian nabarmendu beharrekoa. Epailleak, ETA-k Egunkarian –beste hainbat erakundetan bezalaxe– bere eragina izan nahi dueneko frogak dituela-ta, pentsatu du Egunkaria bera ezabatu behar duela. Baina, eztabaida hau bere gordinene-

an planteatzeko, zera esan behar da: loji-ka horri atxikiz gero, ETA-koek (edota GAL-ekoek) erabiltzen edo ikutzen dituzten erakunde demokratiko denak itxiarazi beharko liratekeela. Bide hori, demokrazia antidemokraziaz defenda-tzeko estrategia da, demokraziaz antide-mokratak baliatzen direla-eta.

Bide oker horri helduz gero, edozer da posible. Muga zaila baitu estrategia horrek. Hontaz ari garela, gure arbasoek Gernikan aldarrikatu zutena ekarri behar da gogora: ez dela bidezkoa, inori

tormentuz erasotzea, ezta gaizkilerik gaizkileenari bere gaiz-ki egingen aitortpenik ateratzeko ere, nahiz-eta jakin delako gaizkile horixe izan dela krimenik handiena burutu duena. Zuzenbidea burutzeko aitzakiarekin okerbidea hartzen due-nak, okerra okerraren gainean eskaintzen dio herriari.

Hauxe da, nere irudiko, gertarazi dutenaren muinaren alderdirik garrantzizkoena, herrigintza-ren demokraziazkoa-ri dagokionez.

Herrigintza-ren euskarazkoari begira, helburuari lotu behar dizkiogu bitartekoak. Eta BALEIKE-rako ari naize-nez, gogora dezagun, Urolako gehienok, Azpeitian bezala Zumaian eta gainerako herri edo auzoetan, geure egunoro-koan euskaldun izan nahi dugula. Izan-nahiak egi bihurtze-ko, bideak behar izaten dira. Egunkaria 1990.eko abenduan plazaratu zen. Ba, hogeitaz urte lehenago, eman genuen argi-tara, 1970.eko abenduan, URTEKARI-71, honako agurra zuena bere atarian, neronek idatzia: "Geu izan nahi dugu-nez gero, egunoroko ordu orotan izan nahi dugu euskal-dun: telefonoz mintzatzean bezala mendian kantatzean, bakardadezko neke-pozetan bezala gizarteazkoetan, egun bakoitzeko ordu eta zeregin orotan. Dugun lema bete ahal dezagun argitara dugu URTEKARI-71". Egunorokotza eus-karaz bizi nahia, eleanitz izateari eta tekno-aurrerapenei uko egiteke, egungo euskaldun eta euskotarrik gehienon asmoa eta erabakia da, Urolan eta gainontzeko bailaratan.

"Kanpotik
datozkigun oztopoak
gainditzeaz gain,
geure baitatik ere
bide berriak ebaki
beharrean gaude"

Egunkaria bidezko egiten zuena eta duena, herri eske hori zen eta da.

Baina, Egunkariak zertaraino bete izan du gure artean egiteko hori? Ba, neurri oso apalean. Zumaian zabaltzen ziren dozenak kontatzeko esku bateko behatzak nahikoak dira. Hori da zuen eraginaren seinale. Zergatik hain gutxi? Arrazoi bakar bat aipatzeak ez du balio. Baina ezin konforma gindezke esanda: konpetentziak duela errua. Euskaldunon Egunkaria ez da sekulan izan euskaldun guzcion egunkaria, euskaldun talde batek bere ikuspegi jakin eta minoritario batetik beste guzoi eskaini digun egunkaria baizik, idazteko bezala irakurtzeko. Horrek berdin balio du Euskalherri osoari

begira eta, baita, gure Urolari begira ere. Adibidez, ez zen zumaiairik gehienon gustukoa izan Egunkaria-k erakutsi zuen jarrera editoriala Joxe Mari Korta ETA-k erail zuenean.

Ondorioz, zer? Gure egunorokotza euskaraz burutzen laguntzeko, urtekariak, astekariak eta egunkariak ezezik, ordukariak ere beharrezkotzat jotzen ditugun euskaldunok eta euskotarrok, oraindik zeregin asko dugula gure era anitzetako euskaldun izan nahiari zor dizkiogun bideak lantzen, kanpotik datozkigun oztopoak gainditzeaz gain, geure baitatik ere bide berriak ebaki beharrean gaudelako.

Pako Garmendia

Egunkaria Aurrera! Euskal Herria Aurrera! ETA aurrera!

Egunkaria Aurrera!

Ia dena esanda dagoela iruditzen zait. Inondik inora onartu ezin daitekeen bidegabekeria galanta egin dute del Olmo epaileak eta abarrek. Bidegabekeria ugari atxilotuen aurka, langileen aurka, harpidedunon aurka, euskararen aurka, eta Euskal Herriaren aurka. Gure elkartasun osoa merezi dute guztiek. Egunkariak aurrera egin behar du, eta ahal balitz, lehen baino hobeto, harpidedun gehiagorekin (Pako Aristik oso ondo esaten zuen bezala) eta ildo editorial... nolakoarekin? Horra hor korapilo ederra!

Izan ere, ez dut uste posible denik "euskaldun guztion" egunkaria egite-rik. Ez dut uste euskaldun guztiok gustura irakurriko dugun kazeta sortzea posible denik. Baina ahalik eta irekiena izan beharko lukeela bai. Eta gauzak garbi esan behar ditugula ere bai. Alde horretatik, oso murriztua eta lerratua iruditu zait ETAk su-etena hautsi zuenetik zuzendaritzak euskal gatazkaren inguruan hartutako ildo editoriala. Hor bota dut faltan egunkariak bestela ugari (segur aski beste periodiko guztiek baino ugariago) izan duen ausardia, pluraltasuna eta irekitasuna. Egokiagoa iruditu zait, adibidez, ARGIAk hartutako ildoak. Izan ere, komunikabideen esparruan oso zaila da interes gerra ugariatik libre geratzea.



"Aukera hau aprobetxatu behar da etsaituta dauden alderdi eta sektoreen arteko elkarlana bultzatzeko"

Ez gaitezen engainatu. Hemen inor ez gara aingeru. Gogoeta eta eztabaida zintzoa behar dugu, baina hori bai, helburua argi izanik: Egunkaria Aurrera!

Euskal Herria aurrera!

Bestetik, egoera ilunei alde ona bilatzearren, uste dut aukera hau aprobetxatu behar dela etsaituta dauden alderdi eta sektoreen arteko hurbiltasuna eta elkarlana bultzatzeko. Hori ere ez da erraza, besteak beste hauteskundeak datozelako. Baina betikoa: gure artean liskarretan jarraituz gero, jai dugu!

ETA aurrera!

Azkenik, egoera nahasi honetan ezin bestekoa iruditzen zait ETAr aurrera egin dezan eskatzea. Ez hiltzen jarraituz, jakina, baizik eta Euskal Herriari egin diezaiokeen mesederik onena eginenez: su-etena eman. Oztipo gehiago pilatu beharrean, eman diezaiola aukera bat herri honi aurrera egiteko. Inork inoiz ez dezan berriro inongo aitzakia-rik izan egunkaririk ixteko edota inor torturatzeko. Eman dezala su-etena, sufrimendu eta bidegabekeria kate luze honi lehenbailehen amaiera ematen hasteko.

Joseba Ossa

Beti esan izan da udaberriyan jendia txoratu iten dala...

Hala al da?



Belen Salegi

Batzuk urte guztian ibiltzen dia txorauta.



Mari Karmen Odriozola

Hori esan izan da beti, ta lengo esaerak segi berko ditugu.



Jorge Sanchez

Egia da, baina nik beti daukat odola mugituta.



Fran Aizpurua

Esaera bat dek, besteik ez.



Manuel Mari Garate

Nik uste det animo aldetik dakala eragina. Egunak luzatzen ai dia, ta jendia animau iten da.



Rosa Alonso

Nik baietz esango nuke. Eguraldi ona egiten hasten denez animatu egiten gara..

CROISSANTERIA

marina

pizzak
hanburesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuna
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu

943 30 35 55

943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Tapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505

EGUNKARIA AURRERA (bertsoak)

Euskaldunon Egunkaria itxi eta hamar euskaltzaleren atxiloteta beldugarria salatzeko asmoz, Euskal Herriko Bertsozale Elkartek plazaratu ditu bertso hauek. Zumaiaiko bertso eskolak ere bertsolariaren sentimenduekin bat egin eta zumaiaiarrok kanta ditza-gun proposatzen dizuegu.



Zumaiaiko
Bertso Eskola

Zumaiako III. Zuhaitz Eguna

Zumaiaiko
Natur Taldea

AURTEN ERE, Zuhaitz Eguna ospatzeko asmoa dugu Zumaian, eta horretarako zuhaitz landaketa sinbolikoa egitea pentsatu dugu. Hiru zuhaitz besterik ez ditugu landatuko. Bai, hirugarren Zuhaitz Eguna denez hiruzuhaitz nahikoa direla iruditu zaigu.

Zuhaitz hauek erosteaz, landaketa prozesuaz eta landatzeko behar diren tresnak lortzeko egin behar joan etorriez Natur Taldeko zenbait bolondres arduratuko dira, azkeneko bi aldietan bezala. Landaketa gunea oraindik zehazteko, baina Natur Taldeko boluntarioak arduratuko dira leku egoki bat bilatzeaz ere. Eta kitto!!

Baina hori nahikoa ez dela iruditu zaigu aurten Natur Taldekoei.

Zuhaitzei urtean zehar ospakizun egun bat eskaintzea egokia iruditzen zaigun arren beste ardura garrantzitsuagoak hartu behar direla ere iruditzen zaigu, batik bat erakundeen aldetik. Zergatik? Gure inguruan gero eta zuhaitz gutxiago dagoelako. Gizonak eta bizitzeko behar duen espazioak lekua han diete (bestela, begiratu zure inguruan), eta ondorioz urte gutxitan zuhaitzen kopurua asko jaitsi da. Jaitsiera oso kezagarria izan da mundu osoan, baita Zumaian ere. Espezie batzuk desagertzeaz daude, beste batzuk bidean doaz, eta berez jaiotzen ziren zuhaitzez inguratuta egotetik baso artifizialez inguratuta egotera pasatu gara. Eta egoera gero eta larriagoa dela esan beharrik ez dago.

Baina gauzak horrela daude, eta guztiok ahal den neurrian konpontzen saiatu beharko genuke, edo, behintzat, ez gehiago izorratzen.

Orain dela urte batzuk, Europako eta mundu mailako erakundeak, egoera aztertu ondoren, konturatu ziren aldaketak egin behar eta araudiak sortu behar zirela hondamendiari aurre egiteko.

Ondorioz haxe adierazi nahi dugu:

- Ez dela nahikoa sentsibilizazio kanpaina bat, gutxiago egun bakar batekoa.
- Erakundeek zuhaitzak (herri barrukoak eta ingurukoak) tajuz zaintzeko neurriak hartu beharko lituzketela.
- Erakundeek ematen ari diren pausoen berri eman beharko luketela legez.
- Zuhaitzen egoera eta beharren inguruko ikerketa, legedia, etab. lantzea derrigorrezkoa dela iruditzen zaigu.
- Erakundeek izan beharko luketela ideiak jarri eta aurrera eramateko gogoia ipiniko dutenak, talde txikien esku utzi beharrean.

Besterik gabe, gai honen inguruan guztiok hausnarketa txiki bat eginez gero, pixkanaka Zumaiaiko baso eta zuhaitzen egoera hobetuko delakoan gaude.

Doinua: *Intsumisoena*

1
Madrilgo estrategia
iritxi da zoro
hitzei hatsa kentzea
harturik metodo
astindu egin gaitu
buru eta gogo
euskararen hauspoan
gabiltzanok oro

2
Espero zitekeen,
ez genuen uste
miresten ditugunak
mallatu dituzte
asko mututu eta
denok jo gaituzte
aspaldi ez genuen
ikasi hainbeste

3
Ixitako hitzari
nola egin omen?
Nola bildu beretzat
behar beste kemen?
Defentsarik onena
oldartzea omen
aurrerako pausoa
behar dugu hemen

4
Lehen ere oihu franko
daukagu entzuna
elkartasun kezuak
galdu du zentzuna
min honek izan beza
bere oihartzuna
kioskoetan dago
gure erantzuna

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea

tel: 943 86 16 66

e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Abortua Sexualitatea

E SAN GENEZAKE haurdunaldiaren aurrean hiru modutara jokatzea dagoela. Batetik, umea izan nahi dutenak daude, eta ondorioz, beren harreman sexualak emakumearen obulazio datarekin bat egiten saiatzen dira. Bestetik, haurdun gelditzeko asmorik izan ez arren haurdunaldia onartzen dutenak daude; azken finean, umea izateko beren asmoa zertxobait aurreratu baino ez da egin. Eta azkenik, inolaz ere planifikatu gabe haurdun gelditzen direnak. Horiek ez dute umerik izan nahi, eta horretarako hamaika arrazoi izan ditzakete (adina, bikotearen arteko harremana, arazo ekonomikoak...). Horrela, bada, edozein arrazoi dela medio norbaitek abortua izan nahi badu, inor ez da erabakia hartu duena baino gehiago, erabaki horretan atzera egitea agintzeko. Ez bere ama, ez apaizak, ez politikoak... Beraz, ez epaitu inor haurdunaldia eten nahi duelako, jadanik badaude nahiko fiskal. Haurdun gelditzen bazara, aztertu egoera eta hartu erabakirik egokiena. Bakoitzak bere arrazoiak ditu eta guztiak dira errespeta-garriak.

Esan beharra dago haurdunaldi hori eteteko denbora oso garrantzitsua dela; hots, zenbat eta lehenago eten haurdunaldia, orduan eta hobe (garapen enbriionarioaren hasierako fasea izango baita). Gainera operazio kirurgikoa askoz ere errazagoa izango da. Jakin beharra dago, haurdunaldia eteteko garai onena amonorearen 6. edo 8. astea dela, hau da, azkeneko hile-rokoa izan duzunetik, 6. edo 8. astera. Kirurgikoki erra-

za da (bost bat minutukoa) eta anestesia lokala baino ez da behar. Emakume batzuek diotenez, hile-rokoarekin pasatzen den mina baino txikiagoa da haurdunaldia eteteko operazio kirurgikoak eragiten dizuna. Egun horretan etxean lasai egotea komeniko da, baina hurrengo egunean eguneroko dinamika berdin-berdin egin daiteke.

Komenigarria da abortua izan ondoren zenbait neurri hartzea, esaterako honokoak: ez izatea koitorik 3 astetan zehar; zikintzen den lehenengo egunetan konpresak erabiltzea tanpoiak erabili beharrean, tenperatura aste betez kontrolatzea; bi astez dutxatzea bainatu beharrean...Gaur egun abortuek ez dute inolako eragozpenik sortzen; izan ere, baldintza oso onetan egiten dira operazio horiek, eta bestalde emakumeek ere sendagileak agindutako ondorengo baldintzak hitzetik hortzera betetzen dituzte.

Esperientzia horrek, gutxienez, ikasteko balio dezake. Eta hortik aurrera berriz uste gabe haurdun ez gelditzeko neurriak hartu. Ez fidatu ogino metodoaz... Ez pentsatu behin kondoirik gabe egiteagatik ez zarela haurdun geldituko. Azken finean sexualitatea jolas bat da, baina lasai jolasteko neurriak hartzea beharrezkoa da. Beraz, disfrutatu, baina beharrezko neurriak erabiliz!



Ihantz Linazisoro.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatu + Asegurak
Finke Administrazioak

biomin aguirre 4. behea
20.750 zuzia (giuzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa


Basadi,3-A
Tel. 943 861670



alvoa-se!

baleike

ULTIMATUMA 28ari



BILBON ERE JARRI omen dute, baina ziur ez daukala honakoarekin zerikusirik. "O eléctrico 28", Lisboako tranbierik ezagunena dela esatera ausartuko nintzateke batere beldurrik gabe; bai, Lisboan oraindik tranbiek garrantzia handia dute garraio publikoaren sarean, eta gure auzotik pasatzen den 28ak ez dauka parekorik. Hori koloreko tranbia hau, auzo historikoetatik igarotzen da, ttiriki-ttaraka bere erritmo erdoilduekin. Mourarian "legerik gabeko" eremua igarota, Graçan auzogiro herrikoia dasta daiteke, aldapan behera Alfamara kale ertzak igurtziz jaisteko. Aurreraxeago Santa Luziako "miradouroan" Tejo ibaiaren dizdiraz itxutu, eta geometrikoki antolaturiko Baixa ponbaliarra azkar pasako du, aldapan gora hasiaz. Chiadora iritsita, Brasileira kafetegian Pessoa-rekin kafetxoa hartzea ezinbestekoa da, Camões plazatik gora ta gora beti, Prazeres-ko hilerri ikusgarriara iritsi eta txangoa amaitzeko. Bost hilabete neure atentzio guztiarekin begira ibili, eta oraindik ere tranbia hauek gidatzeko modua misterio bat da nirezat. Horko botoiak eta manibelak, horko zarata eta tinbreak,... misterio hutsa. Gainera Pandoraren kaxak baino ezusteko gehiago ematen ditu tranbia santu honek: bat-

batean bi metroko turista alemaniarrez inguratuta ikusi dezakezu zeure burua, "txoixua hestian bezela" sentituz; edo bezperako parrandaren burukomina haserretutako bikote iskanbilatsu batekin pasa behar duzu. Gau batean Dragon Khan-erako praktikak egiten ari zen gidari batekin egin genuen topo, aze (pott-) abentura! Dena den, nik bi faktore azpimarratuko nituzke. Lehenik eta behin, ordaindu nahi ez duten gazteen atala. Atzeko atea itxitzean, ttak, olagarroa haitzari nola, halaxe zintzilikatzen dira tranbiatik, bidaia dohan eta haize frexkorekin burutuz. Ia beti mutilak izan ohi dira, eta aurreko asteko hilehori hura... sekulakoa!!! Bigarrenez, berriz, aitton-amona edadetuak. Badakit, bai, ez dela xamurra izango beraientzat honelako tramankulu batean ibili behar izatea. Badakit, baina beste alternatibaren bat bilatu beharko luketelakoan nago. Lau hanketan igotzen direla iruditzen zait, eta haiek oreka mantentzea nik Fatimako amabirjinaren mirakuluetan sinestea bezain zaila da. Nahiz eta eserlekua eskaini, beti "overbooking" egoeran gaude (alegia, agurez gainezka!), marmarka hasten dira gero, bateko erreuma dela, beteko gazteen alperkeria dela... Hala ere aitortu beharra daukat badela salbuespenik. Aurrekoan eseri nintzen, eta alboko amonatxoak to galdera: "Gerra oztopatzea posible dela uste al dezu?" Ein??? Orduantxe apurtu zitzaizkidan eskema guztiak, luze jardun genuen hizketan bidaia bukatu eta gero ere, eta hirugarren gerla mundial-mundial batek munduari bira emango diola esan zidan. Zer konparazio jarriko eta, zera, mundua burdinbidetik irtendako tranbia bat dela, galdurik dabilena, eta egunen batean amildegitik behera erortzeko eguna iritsiko zaiola, delako 3. mundu gerra handi horrekin, (oraingoa ez akaso, baina egunen batean ziur etorriko dena); eta gero, dena berriz hasiko omen. To hipotesia! Ni mutil praktikoa nahiz, (txoro xamarra ere bai...) eta okerreana, geltokian eseri eta zain- zain,... tranbierik ez etortzea dela iruditzen zait. Atzo ere, etxera oinez. Eraginkortasunaren filosofia portugesa barneratzea, zaila da. Dedio!! Beste batzuen gisan, neuk ere ultimatumak ematen hasi behar dut!

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuatarako departamendu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322

Hamarreko haundiya

IZENIK GABEKO kuadrilla da gurea. Beti holaxe izan da, ta uain ez gea izena bilatzen hasiko (ezkutuan ibiltzeko garaiak izanda, uaindik eta gutxiyo). Gatozen harira. Uain dala gutxi sagardotegiyan izan geanez, hango buelta in bear dezuenen-tzako dekalogua egin deu. To hamarrekoa!!

1. Plana in.

Hilabete lenuo hasi bear da planak iten. Mahai baten bueltan bildu ta gauzak zehazten jun: sagardotegiya, eguna, jungo geanen kopurua, transportia, ta holakuak...Guk di-dau erabaki genun. Badakizue, geo jan ta edanai azkarro ematiarren.

2. Gauzak lotu.

"Hik autobusa; hango harek sagardotegiya; bestiak jun bear deunen lista; ta nik...beno nik...nik zeoze ingo det". Alperrik izatea hori dana. Azkenian Jaungoikoaren antza hartzen dulako sagardoteiko jira (jiraua ez) antolatzen dunak: hirutasunan kontu hori betetzen du, eta batek hiruen lanak iten ditu. Sagardotegira deitu, autobusa hartu, zerrenda in...Normalian halaxe izaten da, ta gurian'e antzeko parezido. Berdin dio, eina bale!!

3. Telefonua belarriyan hartu ta segi aurea.

Listina hartu, hori koloreko hori. "Sagardotegiak" jartzen dun orrialdera jo, ta sustua!! Perretxikuak aina sagardotegi. Noa deitu? Gure aholkua haxe da: bihatza gora ta bera, ezker esku bi moitu eta listineko puntu batian jarri: "Akelenea Sagardotegia". Total, danak dia garestiyak. Ba, horreaxe!! Deitu, ta lekua baldin bado primeran. Bestela beste bat bilatu, ta beste saio bat ein.

Sagardoteikua lotuta, autobusan txanda. Hemen merkiena bilatzen saiau. Geo, txoferrakin orduak negoziatu, ta konforme bada, aurea. Lan bat gutxiyo.

4. Sagardoteira jun aurreko egunian parrandaik ez ein.

Norbeak jakingo du zer ein, baina gure aholkua hoixe da. Bez-

peran lasai, sagardoteiko jira luzia ta okerra izaten dalako. Orduak aurea jun ahala geo ta geyo okertzen dana. Beaz, bezperan oyan.

5. Autobusak mikrofonua euki behar du.

Derrigorrezkoa. Mikrofonoik gabeko autobusian sagardoteira jutiak ez du bate garziikan. Bueltakuan bertsolai asko izaten da bere abileziyak azaltzeko prest, ta mikrua ezinbestekua da.

6. Sagardoteira aileatutakuan zenbat kupel dauzkan beiratu.

Beiratzia txorakeria da, azkenian gutxi edo asko euki erdipurdi-

ko sagardua atetzen dutelako. Baina bazpare beiratu, ta kontau.

Asko izanda hobe, leku geyokin lasa-yago eoteko proportziyu izatea ta.

7. Jatekua ateatakuan jan.

Jatekua mahaian izandakuan kupele-tik kupelea edanian ibiltzen dan jendia dao. Beayentzat okerro. Jan, bapo jan. Ta bestiak edanian baldin badabe hobe, geyago jatea ta. Hor konpon bestiak!!

8. Asko edan.

Aldeindakuan begiyen aurrian jarrita-ko kontuakin sekulako sustua hartze-

ko arriskua izaten da. Batea jun edo bestea jun, sustua!! Tortilla, bakailua, txuleta ta sagardua= 20 eurotik gora. Ekuazio paregabia...sagardotegikuantzat. Ordaindu beharrekoa nola konpentsatu? Edaten, sagardua lepo edaten. Hori bai, neurriyan.

9. Mozkortutakuak aguantatzeko pazientziya

Sagardotegira juten dian askok eta askok dezenteko leatza harrapatzen dute. Eta harria handiya izaten da hoyek aguantatzia. Pazientziya, egunen batian norbea izango da mozkortuko dana ta.

10. Urtian behin jun.

Geyotan ez. Karterak dantzan jartzen dia sagardoteiko jira inda geo. Behin junda nahikua.

...ah, ta hurrengo egunian...ahal dana ein...!!



Lasai, gu ez gea ta



Tel. 943 860000

ERROTA

OPIL-OKINDEGIAT

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI

G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea

943 86 22 65 - 609 46 56 37

Txirrindularitza: iragana, oraina eta geroa

Zumaiako Zikloturista Elkartek 25 urte bete dituela ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu. Horietako bat Alondegi Zaharrean izandako mahai ingurua. Abraham Olano eta Manu Gonzalez Aramendi medikua izan ziren hizlariak, Gorka Zabaleta Egunkariako kazetaria moderatzaile zutela.

Txirrindularitza eta medikuntza. Horixe zen gai nagusia, baina hortik abiatuta beste hainbat gai jorratu zituzten Olanok eta Gonzalez Aramendik.

Prestakuntzaren bilakaera

Olanoren esanetan, orain urte batzuetan egiten zen prestakuntza eta gaur egungoa oso desberdinak dira. Lehen kilometroak egin eta egin. Horixe zen prestakuntza. Gero pulsometroak sartu ziren. Eta orain denboraldian zehar une jakin batzuetan izaten da txirrindularia puntu-puntu. Bistan denez, bilakaera handia.

Baina prestakuntza aldatzearekin batera beste hainbat gauza ere aldatu dira. Itzuli handiekiko ikuspegia, esaterako. Olanok zioen, orain urte asko ez dela hiru itzuli handiak urte berean egin eta bukatzea izugarrizko balentria zela. Marino Lejarretak behin baino gehiagotan egin zuen hori, Italiako Giroa, Espainiako Itzulia eta Frantziako Tourra urte berean egin eta bukatu. Gogoan al duzue Marinok hori



egitea nola ospatzen genuen? Gaur egun gauzak aldatu egin dira. Olanok ederki azaldu zuen. Itzuli handietako batean zerbait irabaztea da garrantzitsua. Zergatik ikuspegi edo mentalitate aldaketa hori? Olanoren hitzak dira hauek: kirol munduan hain beharrezkoak diren babesleen presioagatik. Irabaztea da balio duena. Hiru itzuli handiak urte berea bukatzeak ez du sosik ematen.

Medikuen garrantzia

Manu Gonzalez Aramendi kirol medikuntzan aritzen den medikua da, eta txirrindularitza oso ondo ezagutzen du. Medikuen laguntza ezinbestekoa dela

uste du. Txirrindulariak eta medikuak elkarrekin lan egin behar dute. Baina medikuak zer egin behar du? Bere ustez, txirrindulariaren gainean egon behar du. Buru-belarri zaindu behar du. Probak edo mediku azterketak etengabe egin behar dizkio. Gonzalez Aramendiren ustez, txirrindulariak hasiera hasieratik egon behar du medikuaren eskuetan, gazte-gaztetatik.

Olanok ere bazuen zeresana medikuen gaiaren inguruan. Medikuek txirrindulariaren osasuna zaintzeko egon behar du, ez medikamentuak emateko. Horrela uste du Anoetako txirrindulari bikainak. Urrunago ere joan zen, bere ustez "medikutxo-




Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



ak" sartu direlako txirrindularitzan izugarriko kaltea egiten.

Gogortasuna eta ikuskizuna

Beti entzun izan da kirolik gogorrena txirrindularitza dela. Olano bat dator horrekin, baina gustukoa denean gogortasuna errazago onartzen dela uste du.

Gogorra izateaz gain, goi mailako kirola denez, estresa ere bere ezaugarrietako bat dela esan zuen Gonzalez Aramendi medikuak. Bere ustez, goi mailako kirola egitea estresantea da.

Gogortasuna eta ikuskizuna lotuta al daude? Gaur egun telebistan txirrindularitza ikusten ari denarentzat zenbat eta etapa gogorragoa, orduan eta ikuskizun handiagoa. Olano ez dago ados ekuazio horrekin. Galdera hau egin zuen: txirrindularia ezinean ikustea, aldapa igotzeko hanka lurrian jarrita ikustea, hori ikuskizuna al da?

Etorkizuna

Txirrindularitzaren etorkizunaren kolorea beltzetik hurbilago dagoela uste du Gonzalez Aramendik. Berak emandako datuen arabera, Gipuzkoan hamar urtetan dezentte jaitsi da federatuen kopurua. Orduan baino 320 fitxa gutxiago daude gaur egun. Olanoren hitzetan, oraingo umeek gero eta kirol gutxiago egiten dute. Medikua- ren ustez, umeek kirola egiten dute, baina nerabe garaira iritsita utzi egiten dute.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058



Stephen Stills "Manassas"

1972AN ARGITARATUA, 2002ko urtearen amaieran izan du bere berrargitalpena Stephen Stills gitarrajole eta abeslari texarraren disko honek. Erabat remasterizatua, lan bikain hau gogora ekarri nahi izan dugu, merezi du-eta!

30 urte luze pasa diren arren, "Manassas"-ek Stephen Stills-en diskorik miretsienetako bat izaten jarraitzen du, berak ere bere lanik onentsuenetako bat bezala kontsideratzen duena. Hara hor Bill Wyman-ek esanikoa ("The Love Gangster" kantuan jotzen du bere baxua): "Proiektuak luzera joko balu, Rolling Stones utziko nuke Manassas-era batzeko".

Garai hartan, Stephen Stills-ek (Buffalo Springfield eta Crosby Stills Nash & Young taldeekin urteetan jo ostein) lagun talde garrantzitsua inguruan zuela, honelako disko heterogeneo bat egin zuen. Bere kideetako batzuk: Chris Hillman, Byrds eta Flying Burrito Brothers ohia; Al Perkins, Flying Burrito Brothers eta Shilo ohia; Dallas Taylor bateriajole ezaguna, Byron Berline Gram Parsons, Byrds, Flying Burrito Brothers eta The Dillards-eko fiddle ospetsua,

eta azkenik gorago aipaturiko Rolling Stones-eko baxujolea, Bill Wyman.

Stills-en asmoa Country-rock talde itzel bat sortzea bazen ere, disko bat gehiago argitaratu zuten, "Down the road"(1973).

"Manassas" honek Amerikako musika tradizional guztiari errepaso bat ematen dio, non angelu guztiak

maisulanak exekuzio bokal eta instrumental ikusgarria du (Hillman-en armoniak, Stills-en ahots apurtuarekin kontrapuntu bikaina osatzen dute).

Horrenbesteko kalitatea bildu zuen lan honek, gaika biltzen ditu bere kantuak; honela, lehen atala, "The Raven", rock eta soinu latinoez dago osatua, taldeak emaniko kontzertuetan maiz jotzen zituztenak. Bigarrena, "The Wilderness", country eta bluegrass-ean oinarritzen da, non "So begins the task" kantu gaindiezina azaltzen den beste askoren artean. Hirugarrenak, "Consider", gehienbat Folk eta Folk-rock estiloak jorratzen ditu, "Johnnys Garden", "It doesn't matter" (Hillmann-ek eta Stills-ek batera kantaturiko eta idatziriko kantua) eta "Move Along"-en (sintetizadoreak azaltzen dira) moduko kantuak dituelarik. Bukatzeko, azken atala, "Rock & Roll Is Here to Stay", rock-a eta bluesa lantzen dituen atala da, eta hemen "The Treasure"

(benetako altxor bat) bezalako kantuak azaltzen dira.

Oro har lan zoragarri bat, bere berrargitalpena dela eta aipatu beharrekoa!



landuak geratzen diren; kantu akustikoak eta elektrikoak aurkitzen ditugu, eta kantuek blues, country, rock, pasa-je latino, rock'n roll, folk edo bluegrass soinuak lantzen dituzte, eta



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





Otoren poesia politikoak

MARTXOAREN 20AN Jose Luis Otamendi poeta azpeitiarrak poesia irakurraldia egin zuen Forondan.

Atxilotu berri duten Mikel Ibarguren poeta zestoarraren poesia batekin ekin zion. Ondoren berak idatzitakoak irakurtzen hasi zen. "Poesia politikoak" izenburupean gordetako poesia sorta irakurri zuen: Euskal Herriko gatazkak, eguneroko errealitateak...berari sortzen dizkion kezkak poesiaren bidez adierazita.

Ordu erdiko saio atsegina izan zen. Poesiak bata bestearen atzetik. Letren eta hitzen soinuak kateatuta. Akaso, poesia bat bukatu eta hausnartzeko denbora ez izatea izan zen okerrenea, bat entzun orduko hurrengoaren soinu goxoak belarrian sartzen zirelako.

Otamendiren barneko kezkak, letren bidez idatziak eta hitzen bidez azalduak. Hitzen korpus aberatsa Otorena. Hiztegi oparoa. Bertaratu ez zinetenontzat hona Jose Luis Otamendiren poesia bat.

Maite zaitudalako

maite zaitudalako
amets egin dut
burdinazko hostoetan zintzilikatu
zugana amildu naiz
gure maitasuna euri tanta delako

maite zaitudalako
sortu egin dut
nakarezko izerditan irristatu
zati izan naiz
gure maitasuna euri tanta delako

maite zaitudalako
uste
sinesten dut
dakit
gure maitasuna euri tanta dela



AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

GOIKO BODEGOIA
"Berriko Goiko"



Erribera 9 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861391

ileapaindegia



Urumea, 6 Tel. 943 862083



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAYA

Erosokeriak ez omen dakar zoriontasunik

TOM FAMILIABURUA da, berrogei urte inguru ditu eta gizaki arrunta eta nahikoa zoriontsua da. Alabaina, Tomen inguruan dena kolokan dago: lankide bat berekin maitemindu da; bere lagunik onena garai txarra pasatzen ari da seme-alaba nerabeak direla kausa; auzokoa, polizia, emaztearen jeloskor dago eta guztiak Tomengana jotzen dute. Baina Tomek baditu bere kezkak. Lanaz nazkatuta, gauero etxera iristen denean denbora guztia seme-alabek jaten diote. Horrez gain, Silvia emaztearekin daukan harremana ez dago unerik gozoenean eta, gainera, andreak berriz ere ama izan nahi du. Baina bat-batean, antzinako andre-gaiarekin elkartutakoan, bizitza erabat aldatuko zaio: Tom 8 urteko alaba baten aita da eta bere gain hartu beharko du neska.

Manuel Poirier frantsesak harridura eragin zuen bere Western sentiberarekin, Sergi López ezagutarazi zuen pelikularekin.

Oraingoan ere elkarrekin dira lanean pelikula bikain eta argitsu honetan, amodioa eta ardura gai nagusitzat hartuta. Poirierrek lasai-lasai, emaro azalduko digu istorioa, oso erritmo egokian, Britainiako baserri-giroan girotuta. Eta pertsonaia maitagarriak erakutsiko dizkigu, guztiak ere Tomen antzeko arazoak dituztenak. Mizkeriak baztertuta, jende arrunta aurkezten digu, hezur eta haragizko pertsonak, ia denok izan ohi ditugun arazoez kezkatuak, eta hori guztia ikuspegi baikor batetik. Istorioaren eragile nagusiak (alaba baten aita zela jakiteak), Tomen inguru guztia argituko du, foku batek bezala: erosokerian lokartutako bizimoduak bizipoza lausotu zuela erakutsiko digu.



La curva de la felicidad
("Les femmes... ou les enfants d'abord", 2002, Frantzia)

Zuzendaria eta gidoilaria:
Manuel Poirier
Fotografia:
Christophe Beaucarne
Aktoreak: Sergi López, Sacha Bourdo, Sylvie Testud.

Apirilak 3, osteguna, 22:15ean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



ZE IKUSIYA

Sekretu mingarriak

VICTOR IZENEKO gazte bat Parisa heldu da. Bere familia aita zaintzen ari da, gaixo baitago. Gaixoak, ordea, oso modu arraroan jokutzen du. Zergatik egin nahi du ihes ospitaletik? Zergatik da zaintzen dutenen beldur? Zoratu egin al da? Baliteke, baina Victorrek, herentzian besterik pentsatzan ez duen familiak ez bezala, benetako zergatia jakin nahi du: zergatik hainbeste beldur?

Denbora aurrera joan ahala, Victorrek agurearen konfiantza lortuko du. Aitak, ordainetan, nahiko ulergaitzak diruditen zen-

bait argibide emango dizkio: existitzen ez den telefono-zenbaki batera deitu behar du, orain urte batzuk hil zen gizon bat bilatu behar du, etab. Aita klinikatik ateratakoan, Victor konturatuko da agureak ez dituela ezagutzen gaztaroko kaleak.

Familiak gertakaria jakin ondoren, aitaren beste ihesaldi bat eragozteko, bisiten arauak aldatu egingo ditu. Victor burumakur sentituko da eta ikerketa erabat uzteko

asmoa erakutsiko du, zentzugabea irudituko baitzaio. Baina, halako batean, istorioari zentzua bilatzen dio. Aitaren erotasunak ikaragarritzko sekretu bat ezkutatzan duela konturatuko da. Denei min egin liezaiekeen sekretua.

En la ciudad sin límites
(2001, Espainia.)

Zuzendaria: Antonio Hernández.
Gidoia: Antonio Hernández eta Enrique Brasó.
Fotografia: Unax Mendia.
Musika: Víctor Reyes.
Aktoreak: Leonardo Sbaraglia, Fernando Fernán-Gómez, Geraldine Chaplin.
Sariak: 2 Goya sari: gidoi onena eta bigarren mailako aktorerik onena (Geraldine Chaplin).
Apirilak 15, asteartea, 22:15etan



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

**IRAK GOGOAN taldeak deituta,
larunbatean (martxoak 29) eta
arratsaldeko 8,30etan,
kontzentrazio ixila egingo dugu
Zumaiako Gernikako Parkean.**

**Ordu berean, 15 minutuz argiak
itzaltzeko gonbitea egiten diegu
zumaiar guztiei.**



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Baselari Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAILA

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia



**ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK**
/elekttrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Behe TF/fax: 943 143097
20.750 Zumaila ekin@ekinad.com

Istalatzaile/banatzale ofiziala



tresna digi-
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943-86-25-32**

TAILERRA: Santxo auzoa40

Citroën C3 berria

OLATUAREN APARREAN



ZUMAIA MOTOR

Santxo Auzoa 22 Tel/faxa 943 14 31 43